

# Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

## Iker Zirion, Kongoko gerran lekuko berezia

Kongoko ipar-ekialdean gerra piztu da berriro. Bake itxuraren azpian bizirik daudela dirudi 1997tik 2003ra arteko gerraren txingarrak. Lau milioi herritarren heriotza ekarri zuen hari Afrikako Lehen Gerra Handia deitu zioten. Orain Kivu aldean hiltzen da jendea, denen oharkabea.

Julien Harneis izeneko batek sinatu du argazki hau. Ipar Kivu eskualdeko Goma hiri inguruan, errefuxiatu kanpalekuan, laguntza humanitaria banatzen den guneetan eta herritarrak ihesi dabiltzan bideetan egindako foto sail ederra eskaintzen du Interneten. Argazkiko amona herritik beldurtuta ihesi zebilen beste asko bezala, Kibatiko kanpalekuaren inguruan, eta gelditu ondoren argazkilariari swahiliz mintzatu omen zaio luze. Amona bezala noraezean dabiltzan beste jendeak ere duintasunez jantzita ikusten dira. Milioi erdi jende dabil ihesi, batzuk oihanean ezkutatuta, besteak ahaideen etxeetan, eta asko kanpalekuan. Irudi txikian Iker Zirion Landaluze ageri da, "Veterinaires Sans Frontieres" erakundearekin joanda Kongon lanean ari den teknikari gaztea.

IKERREK KONGOTIK IDAZTEN DIGU, *Voces del Congo* blegean. Iker Zirion Landaluze da bera, euskalduna, zuzenbidean eta zientzia politikoetan lizentziatua. *Voces del Congo* Bartzelonako *El Periódico* egunkariak dauzkan blogetako bat da. Euskal Herriko Unibertsitatearen Hegoa institutuan ikerketa lanetan aritu ondoren, *Veterinarios Sin Fronteras* (Mugarik Gabeko Albaitariak, VSF gaztelerazko siglengatik) erakundeak Kongoko partzuerrekin martxan dauzkan proiektuetan teknikari lanak egiten ditu, hain zuzen azken aldian gerrak astintzen dituen lurraldeetan, Ipar Kivu eskualdean.

Azaroaren 14an argitaratu du Zirionek lehenbiziko kronika: *Esto no ha acabado* (Hau ez da bukatu). Kexu da Mendebaldeko komunikabide nagusiek Kongoko gerra ahaztuta daukatelako. Azken eraso saila abuztuan hasi zen, baina prentsan ez zen aipatu bi hilabete geroago arte. "Guduek -idatzi du Zirionek-, lekualdatzeek eta gizakien sufrikarioek bi hilabeteko abantaila zeramaten. (...) Eta hamar egun geroago, piztu zen abiadura berean itzali zen albis-teekiko interesa".

Kexu da ere kazetariok artikulu sinpleegiak idazten omen ditugulako, gehienetan besteren sufrimendua azaldu besterik egin gabe, gatazka errazegi mugatuz etnia arazoetara.

Zirionek lehen kronikan ematen ditu liskarrak kokatzeko xehetasun batzuk, baina askoz gehiago emanak ditu 2007ko artikulu sakonago batean ("Gerra ez da ipuina"); VSFren gunean irakur daiteke.

Hirugarren kronika "Kirumbako oihana" deitzen da. Kongoko Armadaren kontra borrokatzen diren matxinoek, Laurent Nkunda jenerala buru duen *Congrès National pour la Défense du Peuple* (CNDP) taldekoek, Kanyarabayonga berenganatu dutela zabaldu dela. Autoz lau orduan irits daiteke hara VSFko bulegoak dau den Butembotik. Erakunde honen bazkide kongotarrek Kanyarabayongatik 15 kilometrora daude. Hauek telefonoz deitu omen diete Zirioni-eta: jendea basora doala ihesi.

Azkenaldian behin eta berriro ezkututzen dira oihanean. Gehienetan ez da izaten inguruan soldaduak gerran ari direlako, frontera doazene edo frontetik datozenek egiten dituzten gehiegikerien beldurrez baidarik. Herritarrak hil, emazte eta neskatxak bortxatu, zernahi ostu edo birrindu... Hango militar guztiek egiten omen dute, baina herritarrek batik bat Kongoko Armadako soldaduen txikizioak salatzen dituzte. Gaizki armatu eta ordaindutako militarrok oso dira arriskutsuak.

"Argibide erraza", izenburu hau ipini dio Zirionek laugarren kronika-

ri. Gatazkaren funtsa nahi digu esplikat. Edo hobeto, komunikabideetan Kongokoaz ematen den esplika-zio errazegia salatu. Nork esan du etnia arazoak daudela muinean eta Laurent Nkunda matxinoak tutsiak defendatzen dituela? "Hamar adjetibo bururatzen zaizkit Nkunda kalifikatzeko bere jatorri etnikoaren beharrik gabe: kongotarra, buruzagia, krudela, matxinoa, mendebaldarren aldekoa, jenerala, azeria, militarra, zinikoa... Horra, bederatzi atera zaizkit. Ea, bai, tutsia".

### Etnia kontuak aitzakia dira

Kongon 250 etnia eta gehiago bizi dira. 60 milioi kongotarren artean %5 dira "ruandofonoak", horrela deituak Ruandan nagusi den kiya-ruanda hizkuntzan mintzo direlako. Horien artean ehunka mila urri batzuk dira tutsiak, gehienbat Ipar Kivuko Rutshuru eskualdean bizi direnak.

Iker Zirionentzako Laurent Nkunda jeneralak tutsien paranoia elikatzen du, baina bere 3.000 soldaduek tutsi aberatsak ondo zaintzen dituzten moduan gainerako tutsiak beste herritarrak bezain baldar tratatzen dituzte. Nkunda jeneralaren kontra atxilotzeko agindu internazionala dago, giza eskubideen kontrako delituengatik. Dokumentatuta dagoen azken sarraskia joan den azaroren



2 eta 4 artean burutu zuten haren militarrek, Kiwanja herrian, gizon, andre eta umeak odol hotzean hilez, batzuek diote 20, besteek 200.

Nkunda Ruandako Gobernuak babesten duela diote zurrumurruak. Eta Ruandako lehendakari Paul Kagame, AEBek eta Britainia Handiak. Kasualitate hutsa ote da erasoak berriro hastea duela gutxi Kongoko Gobernuak Txinarekin akordio bereziak sinatu eta berehala? Antza denez, Txina prest dago europarrek eta amerikarrek baino hobeto pagatzeko bertako zurak, harribitxiak eta mineralak.

Azaroaren 26ko kronikaren titulua “(Berriro) zerotik hastea” da. Asteotan gerrak astindu ditu VSFko kideak lanean ari diren herriak. Tar-

tean CNDPko matxinoek atzera egin dute beren borondatez, 40 kilometrotan, eta kalteak zenbatu ahal izan dira. 200.000 pertsona daude ofizialki ihesean, nazioarteko erakundeek antolatutako kanpalekue-tan, baina beste hainbeste daude kontatzen ez direnak ahaide eta lagunak etxeetan babestu direlako. Oihanean ezkutatu direnak hasi dira kontuz nor bere etxera hurbiltzen.

Kirumba herritik VSFkoei SMSa bidali diete elkarlanean dauzkaten sozio kongotarrek: “Arratsalde on! Eguna berri handirik gabe pasatu da, baina jendea hemen triste dabil. Ezer ez da salbatu. Berriro hasi behar da zerotik”. Iker Zirionek aitortu du ez zekiela zer erantzun. Zorionez, taldeko beste batek ida-

tzi du: “Animo! Elkarrekin hasiko gara berriro”.

*Voces del Congo* blogean azaroaren 28ko mezua (lerrook idazterakoan azkenbigarrena) da: “Kafea hartu jeneralarekin”. Nazio Batuen Erakundeak Kongon daukan armada txikiaren gorabeherak kontatu ditu. MONUC bataiatutako indarra 1999an abiatu zen, orduan hasi eta 2003a bitartean milioika heriotza ekarri zituen gerra handiaren hasieran. Gerra hura benetan izan zen Afrika Lehen Gerra Handia bataiatzea merezi izan duena.

MONUCen misioa herritarrak babestea bada, bistan dago ez duela egoki burutu. Azkenaldian, ordea, herritarrak haserre daude MONUCeko militarrek bitartekari edo baketze lanak baino gehiago CNDPko matxinoei laguntzen ari omen zaizkielako. Militar espainiar bat izendatu zuten MONUCen buru abuztuaren 28an, Vicente Díaz de Villegas jenerala, eta urriaren 27an honek dimititu egin du.

Iker Zirionek ez omen ditu asko maite militarrek eta kafea ere ez du gustuko. Baina kafe bat hartu nahiko luke Díaz de Villegas jeneralarekin, NBEak bidalitako militarrekin zer gertatzen ari den jakiteko. Zergatik 17.000 soldadutatik 5.500 besterik ez dauden gudalekue-tan, adibidez. Kongoko gerra geldiarazteko borondate politikoa falta dela sumatzen du Zirion ikertzaile gazteak, eta nahiago luke oker egotea. ■

[www.argia.com/nethurbil.php](http://www.argia.com/nethurbil.php)  
helbidean, gai honi buruzko informazio  
gehiago eta Interneteko loturak.



Z E R B I T Z U A

### Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,  
pertsonalizatua,  
hurbila eta  
etengabea.  
Horixe  
da gure  
konpromisoa.

**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Herrani kalea - 20004 DONOSTIA  
e-posta: [zinkunegi@euskalnet.net](mailto:zinkunegi@euskalnet.net)  
TEL: 943 420 624